



Gipuzkoako Urrezko Domina 2005

Alfonso Gorroñogoitia  
José María Ormaechea

Gipuzkoako Urrezko Plaka 2005

José María Arizmendiarieta  
Jesús Larrañaga  
Luis Usatorre



Lana eta balio kooperatiboak

Joxe Azurmendi



Esperientzia enpresarial bat guttiz bakana munduan, gura du Gipuzkoako Aldundiak gaurko egun honetan berezitu, Arrasateko kooperatibismoa ohi deritzona, 1955/56an Arrasaten abiatu eta gero Euskal Herri osoan garatua, Urrezko Dominarekin ohoratuz Alfontso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxea jaunak pertsonalki, abentura haren sortzaileetatik bizirik ditugunak, eta Urrezko Plaka bana euren familiei emanez jadagoneko gure artean joanak ditugun Jose Maria Arizmendiarieta apaiza, Luis Usatorre eta Jesus Larrañaga jaunentzat, bost lagun fundatzaile sinboliko hauen izenean behiala... amets hutsa zirudiena gauzatzen eta errealtate bihurtzen parte hartu duten den-denak omenduz, lehen orduko zein geroko kooperatibista, orain esaten den bezala, “arizmenditarrak” oro.

“Labor omnia vincit/ improbus”, esan ohi da: lan gogorrek eragozpen denak garaitzen ditu, hala kantatzen zuen Virgilio poeta latinoak aurreneko Georgikan. Eta latinak hemen ez daude lekuz kanpo. Kooperatibismo arizmenditarraren sortzaileak, gerra zibilaren osteko giro nazional-katolikoan, heziketa kristau estuan izan baitira heziak latinezko meza eta otoitz artean, eta, oraindik gaztetxoak zirelarik, kooperatibistak izan baino lehen, Ekintza Katolikoaren etxeko ategainean astero-astero bizpahiru aldiz gutxienez goiburu hau irakurri zuten Arizmendiarietaren bileretara sartzera: “solus labor parit virtutem, / sola virtus parit honorem”, h. d., lanak bakarrik ematen du birtutea, birtuteak bakarrik ematen du ohorea. Ez dakit nondik etor daitekeen esaldi paregabe hau Bañez Artazubiagakoen XVI. mendeko jauregian, hori baitzen Arrasaten Ekintza Katolikoaren egoitza orduan. Lanaren apologia ederrago eta laburragorik ez dago. Datorrela nondinahi etorri, kontua da Arizmendiarietak eta bere lagunek, antzinako debisa horretan filosofia kooperatibistaren laburbilduma gisako bat ikusiz, beren eslogantzat hartu zutela.

Beraz, gaurko egun honetan Urrezko Domina eta Plakagaz ohoratzen duguna, gazte batzuen egitasmo eta ekintza enpresarial ekonomikoak dira zalantza gabe, gerraoste hartan hasi eta enpresa tipo berriak sortuz (industrialak, kontsumokoak, aurreztaileak, osasunekoak, ikerketakoak), baina batez ere ohoratzen dena, ideia batzuk dira, eta pertsona batzuk dira, h. d., balio batzuk, balio kooperatiboak, pertsona omenduek ideia eta balio horiek inkarnatu baitituzte. Eta hala, orain omenezko ekitaldi honetan arrakasta

historia miresgarri bat ohoratzen dugun bitartean, nahi dugu protagonistek berek gipuzkoar denoi gogora diezagutela, historiaren eta arrakastaren aurretik izpiritu bat egon dela, pentsamendu bat, Euskal Herrian aspaldiko tradizioa duena eta Bañez Artazubiagako oinetxe zaharrak ategainean aldarrikatzen duena: ohorearen iturria birtutea dela, eta birtutearen iturria lana. Alegia, zailtasunak oro –eta ez dira gutxi izan urte guztiotan– garaitzen dituen lana, elkarlana.

## □■ La renovación de un zona

Si nosotros hemos hecho algo -leo en un escrito reciente de Ormaetxea-, ha sido trabajar, trabajar y trabajar. Se refiere a los comprometidos inicios, cuando, adoctrinados por Arizmendiarieta, se sabían los fines –una empresa a la medida del hombre-, pero no los medios; cuando de algún modo había que inventarse la empresa y nadie sabía muy bien ni cuál, ni cómo. Eran jóvenes, metidos en un mundo que no conocían, pero había que salir adelante a toda costa. No bastaba con lanzar un reto al modelo tradicional de empresa. Si el nuevo modelo no tenía éxito, si no producía o no vendía debidamente, se consumirían los doce millones de pesetas aportados por los primeros 100 socios, que habían mostrado así su fe y su confianza en el proyecto, y toda la experiencia habría fracasado. Para conjurar esta amenaza, el principal recurso de aquellos jóvenes fue trabajar sin descanso. Pero si bien la necesidad les obligó a trabajar mucho, el proyecto mismo era el de trabajar bien, técnica y humanamente bien. El primer mensaje que se desprende de la experiencia cooperativa es el de la necesidad y el valor del trabajo bien hecho. Es el trabajo lo que hace a las personas y lo que hace a las comunidades. Luego la historia es conocida, basta recordarla brevemente: la rebeldía de unos jóvenes contra el orden establecido en la empresa tradicional; la idea relativamente temprana de un pequeño grupo de instalarse por su cuenta, ya hacia 1952; y, tras un intento fallido y

algunos tanteos, la decisión, como cuenta Gorroñoigoitia en ese euskera melodioso de Mondragón, "tallerra ein bier juau", que también comienza fracasando por chocar sus ideas con la ley (1954), pero que encuentra un apoyo masivo entre los trabajadores. Finalmente la posibilidad, más bien casualidad, de poder empezar a dar los primeros pasos con Usatorre en Vitoria-Gasteiz (1955), luego definitivamente en los terrenos de Laxarte en Arrasate (1956). Una historia típica de pioneros, de pruebas y de búsqueda, plena de dificultades hasta dar con el producto adecuado y el lugar adecuado. Un joven tornero muere, los primeros días de Vitoria, abrasado en las llamas. El material y la tecnología necesaria tienen que ser importados de contrabando, se paga con dinero que se lleva oculto cosido a la ropa interior, etc. Aventuras de película. Pero, sobre todo, se ve, se aprende (en Italia, Alemania), no se achanta ante las dificultades, y se trabaja duro.

Hoy, 50 años después, el movimiento cooperativo arizmendiano cuenta con 60.000 trabajadores, agrupa a empresas de producción de prestigio internacional, como Fagor, o de consumo, como Eroski, es la primera corporación empresarial de Euskadi, tiene su base de financiación propia en Caja Laboral, su Seguro Social, centros de investigación tecnológica propios, Universidad propia, etc. Más o menos suelen resumirse así los resultados. Pero, con ser mucho, no es todo. Porque la historia del movimiento cooperativo es la historia de la transformación simultánea de un país, especialmente de Gipuzkoa y más en particular de la Mancomunidad de Debagoiena, gracias precisamente, en no pequeña medida, al movimiento cooperativo. Arrasate tenía entonces 8 mil habitantes, hoy tiene 23 mil; la comarca, llena entonces de caseríos, se ha convertido en una conurbación fuertemente industrial de aproximadamente 70 mil habitantes. Las empresas clásicas (sólo la Unión Cerrajera daba trabajo a 1350 empleados), incapaces de hacer frente a los desafíos de los nuevos tiempos, han ido cayendo en crisis y desapareciendo. El 80% del empleo industrial en todo el valle y el 40% del empleo total pertenecen hoy al movimiento cooperativo. De los jóvenes de primera enseñanza sólo el 1 coma y algo por mil accedía a la Universidad; ninguno de los fundadores hoy homenajeados ni de sus compañeros tuvo opción al bachillerato, que era un privilegio para hijos de papá; hoy

el 60% de los jóvenes en Debagoiena accede a una titulación superior. Lo que ahora es una Mondragon Unibertsitatea moderna, en 1943 era la “escuela pobre”, en la que 20 jóvenes de 14 años, hijos de familias pobres, comenzaban a estudiar Oficialía Industrial en condiciones misérrimas, trabajando por las mañanas y estudiando por las tardes (gracias, entre otras cosas, a que los profesores no cobraban, sencillamente porque no se les podía pagar). Podría seguir sumando datos comparativos. Para hacernos una idea más gráfica: “Recuérdese –sigo leyendo a Ormaetxea- que en 1956 en Mondragón apenas existían sólo cuatro vehículos particulares además de los que eran propios de las dos empresas más importantes”. Ciertamente, los tiempos han cambiado. Pero no suelen ser los tiempos los que cambian; sino los hombres y mujeres, los que cambian los tiempos. ¿Qué hombres y mujeres han sido éstos que hoy la Diputación de Gipuzkoa distingue con la Medalla y la Placa de Oro precisamente porque ellos han cambiado nuestros tiempos partiendo de ese rincón de Arrasate? ¿Qué ideas, qué valores representaban?

## □■ Hiru faktoreak

Kooperatibismo arizmenditarraren fenomenoaren ulertzeko, hiru punturi gogoeman behar zaio: (1) eszenario soziala, h. d., Arrasateko herri eta jendea; (2) Arizmendiarrietaren irakaskuntza eta ideien ereintza; eta (3) une horretan suertatu den laguntalde era-erakoa esperimentzia industrial berria lideratu ahal izateko.

Eszenarioa Arrasate izan da, ezaguna baita, herri honek lan industrialaren tradizioa antzinakoa duela, punta-puntan ibiliz langileen emantzipazio gatazka modernoan ere gerra zibila aurretik. 1893ko lehenbiziko grebaren ondoren, 1915 eta 16ko greba luze eta latzak aipatu beharko lirateke; eta, batez ere (gaur omenduok gertakariaren lekukoak izan baitira, 7/9 urteko mutikoak orduan), 1934an urriko greba iraultzailea, Asturias-etik zabaldua, Arrasaten tiroz hildako hiru biktima utzi duena: Unión Cerrajerako presidentea eta

zuzendarietako bat, eta langile bat lanera sartzen enpeinatu dena. Bi urte eskas geroago general errebeldeen altxamendua eta gerra zibila, berriro preso eta hilekin herrian (okupatu eta berehala tropa errebeldeek hiru apaiz eta beste hamabost arrasatear zibil afusilatu dituzte), borroka militarra adina politiko eta soziala izan baita bera ere. Baina Franco-ren garaipen eta diktaturagaz tradizio sozial emantzipatzaile hori guztia, erabat zanpatua geratu da, edozein mugimendu lotu-lotuta, aurrerabiderik inola gabe.

Horregatik, hasiera berri baterako, Arizmendiarrietaren ideia berrien ereintza erabakiorra izan da gerraostean. Arrasate gerrak moralki eta sozialki triskaturiko herria zen: hildako eta exiliatuak, alargunak, umezurtzak, familiak apurtuta (Gorroñogoitia mutikoak, esate baterako, gerra hasi eta ez du bere aita –Amaiur batailoiko kapitaina izan baitzen eta San Andres-eko komandante hurrena- hemezortzi urte geroago arte berriro ikusi, 1955), herrian tuberkulosia, etxebizitza falta, gosea eta hotza gorri, gorrotoa etxeetan (irabazleak eta galtzaileak). Arizmendiarrietak bera heriotze kondena batetik larri-larri salbatua dator. Hasiera berria pizteko, Don Jose Maria apaiz gazteak –25 urte!- Arrasateko gazteekin ekin dio lanean. Historia zaharra utzi eta berria abiatu gura du. 15 urte luze pasa da hura Arrasatera heldu eta kooperatibismoa sortu arte. Formazio urte aspergabeak: sermoiak eta konfesionarioa, gehi gizarte zientzietako klaseak Apendizen Eskolan, irakurketa sozial eta moralak, ikasketa zirkuluak eta konferentziak Ekintza Katolikoan, milaka ordu ikasbide sozial kristaua hausnartzen eta pentsamendu pertsonalista ikasten. Arizmendiarrietak justizia soziala azaltzen du. Lanaren balioa irakasten du, baina lanaren ondoan beti pertsonaren balioa ipiniz. Kritikoa da sistemarekin. Langile kontzientzia zaharrari bide berriak bilatzen dizkio. Gazteen erantzukizuna eta ekimena sustatzen du. Utopikoa ez da, baina lan munduaren eta gizartearen eraldaketa amesten du. Berak aurrera begiratzen du, ez atzera. Balio berriak ditu helburu: lan komunitate berria fabrikatu, bizi komunitate berria herrian.

Arizmendiarrietak gabe Arrasaten ez zen sortuko mugimendu kooperatiboa seguru asko. Baina beste toki batean seguru asko mugimendu kooperatiborik ez zuen sortuko Arizmendiarrietak. Arrasaten ereintza lur onean erori da, parabola ebangelikoarekin esateko.

Zirkunstantziak onak zirela, esango da. Baina zirkunstantziak inoiz ez dira onak, jende ona topatzen ez badute. Apaiz gaztea inguratzen duten langile gazteek, gero mugimendu kooperatiboa martxan jarriko dutenek, ume-umetatik ezagutzen dute lana. Etxean surik edukitzeko, egurra eta ikatz hondarra biltzen ibili behar izan dute mendian edo erreka ondoan eta trenbidean. Goizeko bostetan zain jarri soka eta egonarriz itxaron dute tokatu arte errazionamenduko apurrak lortzeko. Pobre eta justu bizitzen ikasiak dira. Lehen ikasketak nola-hala amaitu (tartean gerra dago) eta 14 urterekin fabrian lanean ari dira. Asteazken sei egun, 50 ordu, oporrak hamar egun bakarrik urtean abuztuan. “La verdad es que nos poníamos el buzo a las 7’30 del lunes y nos lo quitábamos a las 7 de la tarde del sábado”, gomutatzen da Ormaetxea. Hala ere, lan eginez batera, Unión Cerrajera-ko Aprentizaje Eskolan Maisu Industrialak ikasi dute (20/30 ordu eskola astean), gero Peritoa libretik Zaragozan, beti estudioa eta lana elkartzuz, eta gaua eta eguna. Goizean goiz ohetik jeiki, denbora bat estudiantzen eman, zazpiretako meza entzun, gosalduta, eta zortziretarako fabrian, egunoro. Lana bukatu eta, formazio profesionalaz gain, hezkuntza moral eta soziala Arizmendiariarekin Ekintza Katolikoan (“solus labor”, etc.). Iluntzean berriro matematika eta mekanika ikastera.

Kooperatibismoa abiatuko duten lau gazteak -Gorroñogoitia, Larrañaga, Ormaetxea, Usatorre-, txiki-txikitatik elkar ezagutzen duten lagunak dira, kale berekoak hiru, formazio profesional eta moral berdintsukoak. Zailduak lanean eta erantzukizunetan, bai gazteriaren zereginen kudeaketan (teatroak eta antolatzen, Erregetako kabalkadak), bai fabrian (tailerreko jefek hogeni urte baino gazteagoak izanda). Ideal berek animatuak, lanaren eta pertsonaren balioan fededunak. Oso talde batua osatzen dute. Bestalde, denak banan-banan jite oso diferentekoak dira beren artean. Gorroñogoitia elkarrizketazale lasai, patxadako gizona da; Ormaetxea egonezin irritu, erabaki azkarrekoa. Gorroñogoitia astiro eta ondo pentsatzekoa, meditatiboa; Ormaetxea exekutiboa, aktiboa. Laurak zeharo bestelako temperamentuak dira, bere-bere gustuak eta joerak dauzka bakoitzak. Oker ez banago, laurak izan dute zaletasun berdina bakarrik, mendizaletasuna da Arrasate inguruko mendietan. Berdinak eta aldi berean oso ezberdinak dira. Eta ongi da, horrela elkarren osagarri gertatu baitira, garapen kooperatiboan eginkizun ezberdinak hartu ahal izan ditu



bakoitzak: produkzioan, kudeaketan, banakuntzan, etab. Hau izan da, Arizmendiarrietak inspiraturik beti, esperientzia kooperatiboa abian jarri eta zimendatu duen ekipoa.

Mugimendu kooperatiboa jaiotako, gogoan lanerako inkarnuarekin, grinarekin, eta asmoan lana jasotzeko, humanizatzeko helmugarekin. Oinarrizko balioa lana da. Esan liteke pentsamendu arizmenditarra –Arrasateko kooperatibismoarena- funtsean besterik ez dela beharraren, lanaren filosofia bat baino egikaritze bidean (azkengabeki). Zertarako lana? Kooperatibismoan ere lanaren xedea azken finean ondasunak eta aberastasuna sortzea da noski. Baina ez ondasun eta aberastasunok norbere esku pribatuetan jabetzeko, baizik komunitatean banatzeko. Lan komunitatean eta bizi komunitatean. Kooperatibismo arizmenditarrak arrakasta izan badu da, ideal hori zinez praktikatu izan delako, eta ez teoria hutsa. Egun batean itaundu ei zioten Larrañaga-ri konferentzia baten ondoren, nola zen posible, urte haietan guztietan kooperatibista fundatzaileen artean haserre eta etenik ez egon izatea, eta beti ere denek elkarturik jarraitzea. “Porque somos pobres”, erantzun bide zuen ziplo. 1955/56an proiektu hori Arrasaten abiatu zuten garaian 30 urte inguruko gazte gordin haiek, 80 inguruko gazte helduak dira orain. Inor ez da bera aberastu, baina aberastasun itzelak sortu dituzte beren herriarentzat. Ekonomia berri bat sortu dute, ez dute sortu *ordea klase berri bat* –herriko jauntxo berriak-, eta bai langileen komunitate berri bat nahiko parekatua, Debagoienako bailara osoaren oso karakteristikoa dena soziologikoki. Kooperatibismo arizmenditarrak Euskal Herria aberastu du. Ondasun materialez asko aberastu du, begien bistan dago hori; baina ondasun moralez, balioz, irakaspenez, mentalitateak kanbiatuz aberastu du ez gutxiago. Gorroñoigoitiak ja 1967an honela ikusten zuen: “Nuestro cooperativismo, por institución, aporta al mundo del trabajo: el testimonio de la posibilidad y de la eficacia de otro tipo de estructura empresarial; la realización y promoción de patrimonios comunitarios; la institucionalización de la participación de la comunidad en los resultados de la cooperativas a través del Fondo de Obras Sociales; una retaguardia de reserva para las fuerzas de choque y una amplia opción de dirigentes que la masiva promoción humana en las empresas cooperativas y su entrenamiento en la misma configura”.

## ■ Lanaren balioa: hezkuntza eta lana

“Solus labor parit virtutem...” Aburu xaloa ematen du, baina –ondo begiratuta- franko ezustekoa da historikoki, eta agian gaur bertan ere erraz gaizkiulertzen da. Hori ez baita –Arizmendiarrietak zuzen ulertu badu- esakune moral deboto bat, esakune zinez iraultzailea baino, moderniairen proklamazio goiztiarra. Izan ere, zer da birtutea eta nondik etortzen da? Kontzeptuak ibili egiten dira historian, eta atzo zirena, gaur ez dira. Gizarte estamental tradizionalan, norbaiti birtutea ematen diona jaiotza da. Hobeki, etorkizko noblezasuna da birtutea ematen duena, ez nobleek birtuterik ez baitute. ‘Birtute’ hitza latinezko ‘vir’etik dator, eta gizona esanahi du, edo arra aziendetan, eta hala indarra, kemena, ausardia (it. ‘virtú’ birjaiokundetarra, esp. ‘virilidad’), beti ere nagusi eta “noblea”. Noblezia klase bat da, zalduna, gerrakoa, eta klase hori nagusi duen gizartean –Erdi Aroko feudalean eta haren jarraipeneko modernoan- birtutea nobleziari dagokion esangura zaldundiar heroikoa da, eta are, klase horrena bakarrik da pribilegioa (birtutea zalduntasunaren sinonimotsu). “Noblezia ondasun eta birtute hereditatezkoa da” irakatsi du Aristotele-k. Aitonsemeak aitonsemetzako birtuteak oro jaiotzagaz heredatzen dituela, alegia odolarekin (“odol garbia”), Juan Arce de Otálora (izenak berak zuei zerbait iradokiko dizue), XVI. mendean hain zuzen, saiatu da oinarritzen eta frogatzen, *De nobilitatis et inmunitatis Hispaniae causis quas hidalgua apellant* tratatuan, Granadan 1553an argitaratua. Otálora-k “contempla a los hidalgos como individuos privilegiados por la naturaleza, y en definitiva por Dios. A ellos dedica innumerables elogios: iusti, temperantes, prudentes, magnanimi, affabiles, fideles, charitativi, devoti... Es decir, están dotados de todas las virtudes morales y teologales” (M. I. Lorca, “Boletín de la RSBAP 53, 1997, 629). “Para Otálora la hidalgúia descansaba en la virtud. Consecuentemente, sólo los nobles podían gozar de la misma, porque era la propia estirpe familiar el vehículo transmisor de valores morales” (G. Hierrezuelo Conde, liburu erreseina, “Revista de estudios histórico-jurídicos”, Valparaíso, 22, 2002, 617-620). Ideologia honek euskaldun “apologista” kolore guztietakoak garai batean zein sakonki urasetu izan dituen, guri makinatxo bat aldiz aurpegiratu izan zaiguna

da, baina ideologia espainol arruntik arruntena izan da hori (euskaldun jauntxoena ere bai), aski berandu arte gainera. “En el sistema de esa sociedad estamental hay que decir que la sangre cuenta, y cuenta como vehículo transmisor, entre unas generaciones y las siguientes, de una pretendida superioridad de virtudes, superioridad teóricamente supuesta, gratuitamente afirmada, pero que no por eso deja de ser una firme creencia en la sociedad constituida conforme a tal orden. Canalizado por ella, se transfiere el honor del linaje de los antecesores al hereditariamente virtuoso, el cual posee la virtud por haber recibido la sangre misma de sus predecesores” (J. A. Maravall, *Poder, honor y élites en el siglo XVII*, 1989, 44). Superstizio biologiko eta funtsean aberetar hori da –ozta dago ezer, Arizmendiarietaren pentsamenduari kontrajartzen zaionagorik- errege eta printze eta konteen instituzioa justifikatzeko fundamentu guztia. Hau dena gogoratzen dut, hobeto ikus dadin, nolako iraultza ezkututzen den esaldi itxuraz sotil, mardul hartan. Egia da, autore asko saiatu dela, batez ere Ilustrazioan, arrazoi tradizionalari itzuli moralista ematen, birtutea dela nobletasuna ematen duena, adierazi eragiteko, ezen ez noblezia birtutearen emailea. “La virtud, que da la verdadera nobleza”, esanarazten dio Fernando del Pulgar-ek Gómez Manrique Toledo-ko alkaideari (1478). “La verdadera y sólida nobleza nace de la virtud”, Luis Vives-ek. “La verdadera nobleza está en tu virtud”, argudiatzen dio Dorotea neska gaixoak Don Fernandori negar hasperenka Don Quijote-n (36. kap.). Jerónimo Feijoo-k kapitulu osoa dauka (*Teatro crítico universal*, tomo IV, Discurso Segundo), jaiotza nobleko hainbat gizon gizatxar hutsa izan dela demostratzeko. “La virtud, base de la nobleza” (Jovellanos), etc. Baina diferentzia errotikoa da. Horiek guztiek, terminoen arteko harremana itzultzen badute ere, birtutearen eta nobletasunaren loturari oraindik eutsi egiten diote. Bañez Artazubiagakok, ordea, borratu egiten du esaldian nobleziaren kontzeptua. Horrekin birtutearen esangura ere arras aldarazten da. Are gehiago, nobleziaren lekuan (haren aurka, esplizituki) “solus labor” ipini du, “solus” militante batekin. “Labor”ekin, Arizmendiarietak egin duen legez, “Iana” ulertuz gero, balioen iraultza totala daukagu hor, Erdi Arotik moderniarra pasaian (Birjaiokundean hasi da lanaren balioespen berria). Benetan oinetxe zaharreko ategainak aro berri bat iragartzen du. Eta halaxe, Arizmendiarietak eta bere lagunek aro berri bati ekiteko aldarria legez ulertu dizute harrian idatzitako mezu

harrigarria. Arrasateko gizartea guztiz estamentalala zen orduan, goian jauntxoak jauntxo eta behean langileak langile: biztanlegoaren %90 langileria txiro-txiroa, gose gorrian; enparautxo, fabrikako ugazaba eta zuzendariak osatzen zuten, eta dendari edo baserritar edukitsuentxo batzuk, ia klase ertainik gabe. Arizmendiarietak eta kooperatibismoaren fundatzaileek Artazubiagako esakune haren mezua errealismo guztiarekin ulertu dutena, ezagutzen da, ezen-eta ikusiz nola hori zuzen-zuzenean kontrajarri dioten, Arrasaten orduan dogma sozial baten moduan agintzen zuen beste esakune honi: "ingeniariaren semea ingeniari, peoiaren semea peoi". Arizmendiarieta eta bere lagun gazteentzat, birtutea eta giza balioa, Ekintza Katolikoaren egoitzako mezuaren arabera XVI. mendeko jauregi Bañez Artazubiagakoaren ate gainean, ez da heredatzen, norberak egitekoa da, eta lanarekin bakarrik egiten da. Hegel eta Marx-en ildoan, eta horien hurrengo pertsonalismo kristauarenean orobat, Arizmendiarietarentzat ere lanak egiten du esentzialki gizon-emakumea, hots, lanak sortzen du giza balioa, birtutea. (Hegel: "gizakiak, bera badena, egin egin behar du..., bera zer baden izan, produzitu egin behar du". Gizakiaren esentzialtasuna lanean ikustea hori da, Marx-ek gehien goratzen duena Hegel-engan). Eta lanak gizon-emakumea, espezie gisa nahiz komunitate gisa, nobletu egiten du (odolezkoa ez den nobletasunez). Historian lanak jasotzen du eta noblezten du gizadia. Lagunartean lan ongi eginak ekartzen du onikusia, ohorea, noblezia. Orain, bada, klase gabeko gizarterantz bidean, jaiotzak gainezarritako pribilegioak eta ezberdintasunak ezabatzeko garaia da lehen-lehenik (Arizmendiarietarentzat, jaiotzagatiko edozein pribilegio, ukazio zuzenekoa da pertsonaren duintasun elementalarena), eta eskolako eta hezkuntzako pribilegioak eta barrerak oroz gain, lanekoak ezabatzeko.

Arizmendiarieta eta bere lagunak lanaren balioaren euskal mundu tradizionalen hazi eta heziak dira. Baserriko giroan ondua da Don Jose Mariaren izpiritua, txiki-txikitatik lurrarekin eta lanarekin harreman estuan, aurreikuspen eta aurrezki birtuteak gurasoen etxean ezagutuz. Baina Euskal Herriko baserria azken mendean fabrikari nahiko lotua egon da, baserritar askok maiz lan bikoitza egiten zuela, industrian eta nekazaritzan. Alderantziz, herri industrial asko Euskal Herrian inguru ruralean garatu da geografikoki nahiz kulturaliki,

fabriketako langileak gehienetan baserriko haurrak edo hurren haurrak zirela. Industria eta baserria egiaz ez dira –euskal literaturak batzuetan pentsaraziko lukeen eran- oposizio bat izan. Aitzitik, herri industrialek, ohituretan eta kulturatan, baserriaren luzapen bat ziruditen gehiago (balio moraletan batikbat: familia, jendarteko harreman modu, fede katoliko estu, langintasan, lantegiarekiko atxekitasun pertsonal, etab.). Horregatik, Arrasaten posible izan dena, izango ote zen Gasteizen edo Bilbon? Baina Eibarren izan da, beste garai eta baldintza batzuetan izan bada ere.

Historikoki, euskal demokrazia zaharra ohi deritzona, baserri gizartean hozitu da: etxeke jaun beren lanaren jabeen harrotasuna eta elkartasuna, berdintasun eta menpegabetasun kontzientziarekin, bakoitza norbere duintasunaren jeloskorra eta denak solidarioak auzolanean. Arizmendiarieta haurrak bere sortetxean ikusi eta ikasi ahal izan du, zer den euskal familian lanaren baliospen kasi sakratua; egunoroko lana, ez bakarrik egitea, baizik goizero sortzea eta antolatzea, lana ongi egitea, lanbidearen erantzukizuna norberak bere gain hartzea; beharrak aurreikustea eta kontuz-kontuz sos apurrak aurrezte; iragana gordetzea eta irekita egotea beti geroari, tradizioa eta berrikuntza uztartuz. Arizmendiarietak Arrasateko gazteak lanaren izpirituan doktrinatu ditu, baina erantzukizunean eta ekimenean iniziatu eta bultzatu ditu orobat, eta eginkizunak taldean burubidatzen entrenatu, beraz taldea bera antolatzen ikasarazi. Lanaren arazoa ez baita lana egitea bakarrik, baizik lanaren nagusi izatea, ez esklabo. Arizmendiarietak badaki, herri langilearen askatasuna eta menpegabetasuna, lanak eusten duela: ordea, langilearena berarena izan behar duela lanak horretarako. Atzoko "etxeke jauna"k, gaur "lanaren jauna" izan behar du. Alabaina ideia hori ideia da, eta hori egikaritu gazteek berek egin beharko dute.

Horretarako ez da aski oso langile gogotsuak izatea. Langilea ezingo da lanaren nagusia izan, profesionalki prestatua ez badago. Hezkuntza beti da lanaren aurretiazkoa: baserriko lanerako aski izan zitekeen betiko hezkuntza tradizionala, gurasoengandik etxean jarauntsia, baina lan moderno baterako heziketa moderno bat da beharrezkoa (profesionala). Hogeita hamar urtean Arrasate arras berritu omen zela eta, zerk eragin du aldaketa hori?, galdetu

zioten Arizmendiarrietari. "Hezkuntzak", erantzun zuen zalantzarik egin gabe (1973). Fabrikak baino lehen prestakuntza dago, morala eta profesionala, biak batera. Mugimendu kooperatibo arizmenditarren fundatzaileengan hain zuzen gehien inpresio egiten duena, beren inkarnua da estudiorako, bai gazte-gaztetan eta bai gero, beti, beren karguetan inoiz abandonatu izan gabe lana eta estudioa biak lotu-loturik eramatea. Hona hemen data batzuk, Arizmendiarrietaren pentsamenduan eta obran hezkuntzak puntarengo lekua eduki zuela, erakusteko:

1943: Lanbide Eskolaren sorrera 20 ikaslegaz.

1948: "Liga de Educación y Cultura" sortu - orain "Hezibide".

1952: Lanbide Eskola berria: 1000 ikaslerentzako apailatua.

1958: Neskentzako ikastaroak Lanbide Eskolan.

1965: Lanbide Eskola Politeknikoa - orain "Jose Maria Arizmendiarieta Eskola Politeknikoa".

1976: Alecoop ("Actividad Laboral Escolar Cooperativa").

Jaiotzaz dena baino gehiago, hezkuntzaz bilakatzen dena ei da gizakia. Umea, andre edo gizon izateko jaiotzean da: baina andre eta gizon ez du egiten adinak, baizik hezkuntzak. Hezkuntzak trebatuko du bere eginbeharren kargu bera egiteko; hezkuntzak altxatuko du bere buruaren jabe; hezkuntzak irakatsiko dio kideen lagun solidario izaten. Ez, ordea, hezkuntza soilak, lanean eta lanaren nagusitasunean bururatzen den hezkuntzak baino. Hezkuntza lanaren zerbitzuan dago. Hezkuntza da, errepikatuko du Arizmendiarrietak behin eta berriro, etorkizunari begira herri batek egin lezakeen inbertsiorik errentaginena. Herri ezjakina, herri kateatua eta menpekota da ezinbestean.

Hezkuntzaren zeregina bikoitza da: pertsona bai moralki eta bai teknikoki bere eginkizunetarako prestatzea. Zer da gizakia? Izaki kontraesanetz bete: aseta ere bere buruaren kaltetan jaten eta nahikoa edanda ere edaten jarraitzen duena, bizia irrikatzen duelako suizidatzeko gauza dena, zer nahi duen egin ikasi egin behar duena. Gizakia, bere burua burutu beharrean dagoen izakia da, egingabea. Hezkuntzak, instintoak menperatzen eta egoismoa ukatzen irakatsiz eta bere burua gainditzeko gizakideekin elkartzeko, egokitzen du pertsona lanerako, lanak egingo du pertsona oso eta heldua. Langilea bere lanaren jabe izateko, tekniko ere izan behar du hezkuntzak, humanistaz gain. "Gizon bati emaiozu arrain bat eta egun bat jango du; irakatsiezaiozu arrantzan eta egunoro jango du".

## □■ Lanaren anbiguitasuna: Prometeo eta Herkules

Prometeo da zibilizazioaren fundatzailea, gizadiaren aitagoia nolabait. Hasteko, berak salbatu zuen gizabaretzoa hondamenetik, Zeus-en haserrea baretu zuenean, hori gizajende osoa lurrazalaren gainetik ezabatzeko amorrutan zebilenean. Gainera, buruargia zen bezalakoa eta Ateneak eskolatua, berak irakatsi dio andre-gizon ezengabeari etxegintza eta arkitektura, matematika, astronomia, nabigazioa eta medizina, haren bizimodu tristea jasotzeko. Hala ere andre-gizonak sua falta zuen. Atenearen laguntzarekin Zeus engainatuz Olinpoan ezkutaka sartu, eguzkiaren gurditik sua harrapatu, eta lurtarrei eman zien. Suagaz gizakiek metalgintza eta teknika beldurgarri guztiak asmatu ahal izan dituzte, egundoko aurrerapenak eginez munduaren azpiraketan. Marx eta, XIX. mendea orohar (Lord Byron, Shelley, Goethe, Leopardi), biziki prometeozalea izan da: Zeus tiranoaren aurka errebelatua, suaren eta progresoarekin ekarlea, Prometeo hori da gizaki moderno, bere buruginaren eredu. Prometeo titan bat da.

Hegel-ek, haatik, beti bezalako fin, titana eta heroia, grekoen natura eta izpirituaren pentsaeran, bata besteari kontrajartzen du (*Vorlesungen über die Philosophie der Religion*, II, C II, 2 a). Prometeo titan bat da hain zuzen, figura aski negatiboa grekoen imaginarioan. Eta mitologiak, Zeus-ek azkenean sekula guztirako zigortua aurkezten digu, zutarri bati katelotua eta biluzik Kaukaso mendian, haren gibela egunez putre batek jaten duela, gaez berriro handitzen, hurrengo egunean berriro tormentuarekin hasteko, betiren beti. Prometeoren figura alderantzikoa Herkules da, heroia, gizon bezala hasi, bere bizitzan zibilizaziozko hainbat lan kasi ezinezko han-hemen burutu behar izan, eta azkenean -“lanaren bitartez”- olinpotar izatera goititu dena. Suarekin haragia eta ogia erre daiteke, baina etxea eta hiria ere bai. Prometeok zibilizazioaren alderdi hondagarria, kontrolatu gabekoa, deabruzkoa irudikatzen du. Herkules ez da Prometeo baino gutxiago ausarta eta kementsua. Baina berak egiten dituen hamabi lanak, ez dira natura bortxatzeko eta azpiratzekoak, baizik natura indar suntsitzaile eta piztia gaiztoetatik askatzekoak: Nemeako lehoia eskuekin ito du, mendialde hartako ardiak hala artzainak irensten zituen; Lernako hidrari ezpatarekin lepoa moztu, heriotza eta ikara zabaltzen zuelako bailara emankor hartan; Zeriniako oreina harrapatu du, baina bortxarik eta armarik erabili gabe (“oreinaren ehizak” jakinduriaren esespena sinbolizatzen du); Erimantoko basurdetzar basatia atzeman, Augias-en ukulu atsituak garbitu, Estinfaloko kurrilo gizajaleak asko geziz bota eta besteak uxatu, mahastiak eta baratzeak erauzketan zituen Kretako zezena errendatu, etab., etab. Herkules-ek amazonak eta mandilak garaitzen ditu, abere-lapurrak zigortu, munstroak eta piztiak akabatu, arrotzak edo ostatuan hartuak hiltzeko ohitura barbaroak aienatu, Gibraltarko itsasbidea irmotu eta aseguratu, Libiako basamortuan iturria sortu: munduan ordena gizatiar zuzena birrezartzen du beti.

Lanaren alde bikotasun hau kultura guztietan sumatzen da. Hesiodo-ren kontadizoan, gizakiak lehenago zoriontsu bizi ziren urrezko aro batean, miseria guztiak –beharra, heriotza- Pandoraren upel dohakabetik eskapatuak dira. Baina, bestetik, Homerok gerra bezainbat, Hesiodok lana kantatzen du -“eris” ona-, laborariaren aberastasuna eta onikusia, ohorea berak baitakar. Berdin, Itun Zaharrean Jainkoak gizona sortu eta Edengo baratzearen



erdian ipini zuen “landu eta zain zezan” (Gen. 2, 15). Bekatuaren ostean bakarrik esaten du Jainkoak: “madarikatua lurra zure erruz! / Nekearen nekez / aterako diozu janaria / zeure bizitzako egun guztietan / (...) Zeure bekokiko izerdiz / jango duzu ogia” (Ib. 3, 17-19). Eta “Edengo baratzetik bota egin zuen, lurra landu zezan” (Ib., Ib. 3, 23). Lana biak da gizon-emakumearen bizitzan: zigorra eta askabidea. Zapaldu egiten du, eta jaso egiten du giza bizitza. Horregatik Hegel-ek, testutxo kasi ahaztu batean, lana eta izpiritua lotutasuna eta borroka esplikatzeke, “ora et labora! egizu otoitz eta egizu madarikazio”, itzultzen edo interpretatzen du (“bete und fluche!”). “Lan egitea mundua ezeztatzea edo madarikatzea da” (“Aphorismen aus Hegels Wastebook”). Lana, askotan, madarikazio hutsa da; eta beti dauka zerbait madarikaziozkoa.

Arizmendiarieta bultzagile bat izan da, eta ia lanaren balio positiboak bakarrik hartu ditu aintzat: lana komunitateari eskainiriko zerbitzua da, gizakiaren errealizazioa, etab., aski ezagunak dira haren ideiak puntu honetan (ik. N. Agirre et al., *Lankidetzeta: Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua*, 2000). Berak lanaren balioen pedagogia egin du. Gaur berriro halako lan pedagogiko bat lanaren alde, ez nuke esango, inoiz baino beharrago ez genukeela. Baina hori printzipioz berak ezin hobe egina duelakoxe, guk, lana eta teknikaren meditazio berri bategan, planteamendu hura bere optimismoan zerbait auzikatu ahal izango genuke apika. Estreina, gizakia ez da “homo faber” soilik, “homo ludens” da orobat, Huizingarentzat duen zentzuan (eta arazoa izango da, lan bitartean ere –ez handik kanpora bakarrik langilearen jostaria nola bideratu asmatzea: Huizinga-k berak kontenplatu ez duena, nolana ere). Gero, makinako lanak eta makinak ekarri duen lanaren banaketak, ez dirudi gizakiaren errealizazioa beti ziurtatzen duenik. Edonola ere, aurrerapen teknikoek gizadia progresiboki jasoko zutelako itxaropena, itxaropen tragikoa izan da agian. Gutxienez arriskua ukaezina da, langilea makinaren gatibu egotekoa. Eta lan orduen gutxitzea, aisiaren gehitzea, igandeko mendizaletasuna, etab., denak ematen du direla, ez lana, baina lanetik arintzeko neurriak; lanaren soluzioak barik, soluzioak lanaren aurka, lazeari kondentatua dagoen “herriaren opioa” beraz. Nola lortu langileak, bere askatasunerako jarduna ikustea bere lanean? Posible da? Arizmendiarietaren proiektua lana bera gizatiartzea baitzen.

Okerrago dena, gizakiaren teknika gizadiarentzat mehatxu bat bilakatu da: soziala, ekologikoa, militarra, morala. XIX. mendeko makina eta teknikaren euforiari, XX. mendeko teknika eta zientziaren beldurra segitu zaio. Beldurrarekin, birgogoeta: nola ziurtatu orain, mundua eraikitzeke adina birrintzeko diren tekniken kontrola? Prometeo behar naturalen asetzeko lana da (naturala); Herkules, behar izpiritualen asetzeko lana (moral, "politikoa", politikaren zentzu grekoan). Teknikak osagarri "politikoa" behar du –ahalak, morala-, berak suntsituko ez bagaitu. Eskilo-k Prometeo-ren mitoari itzuli polit bat eman dio, eta badirudi, Prometeo askatuaren ipuin hau Eskiloren asmazio propioa dela: Herkules-ek, bere joanetorrien buruan, Kaukasora heldu eta han Prometeo kate eta tormentuetan topatu du. Kupiturik, heroi zintzoak Zeus-i barkamena erregutu dio zigortuarentzat, eta halaxe mesede egiten dio Zeus-ek. Heroiak, beti aldean daramatzen geziekin putrea akabatu, eta titana kateetatik askatzen du. H. d., zibilizazioak hartua daukan bidearekin, gizakiaren lana –sua, teknika- anbigua da, arriskuz betea gizadiarentzat berarentzat, eta beti izango da anbigua: askatasunaren prezioa da. Baina heroiaren lan gizatiarrak eta begiramenak, suak eta teknikak bortxakoitzen duten gizakiaren *hybris* titanikoa, erredimi lezake.

Arizmendiarrietak ezagutzen zuen lanaren errotiko anbiguotasun hori. Haren programa horregatik zen lana gizatiartzea. Lana gizatiartzeak, haatik, alde guztietako eskakizun ezberdinak biltzen ditu. Azken finean, azken helburu bat guztizkoa baino ezin izan liteke, gizakia bera guztiz gizatiartu dela, suposatzen baitu: orduan bakarrik utziko du lanak eta teknikak mehatxu bat izatea jainko eta gizonentzat. Gizadiak ja ez dio utziko Prometeo bat izateari, baina lan titanikoa, langile gizatiarrak birrerosten du, salbatzen du. Bide luze horretan, gure eginkizuna orainez gero langilea makinatik askatzea izan liteke. Arizmendiarrietaren etapa, langilea menpetasun sozialetatik askatzea izan da, eta bere buruaren jabe bihurtzea, lanaren nagusi.

## □■ Lanaren nagusiak: langile eta enpresari

Kooperatiba arizmenditarraren ideia, produkzio enpresa demokratikoarena da: enpresariak, langileak berak dira, denak batera eta bakoitza. Kooperatibista bat, langile enpresari bat da. Baina umea mutiko edo neska jaiotzen da, ez da kooperatibista jaiotzen: kooperatibista egin, kontzientziak egingo du. Eta kontzientzia egin, tradizioak, hezkuntzak, gogoetak egiten dute. Gizakiak, instintoak eta grinak gainditu ahala, eta egoismoa batez ere, aurkitzen dizu, bere alboan jardun diharduena, lankide eta kooperatzaile duela. Orduan aurkitzen ahal du bere natura kooperatiboa, solidarioa. Horretarako hezkuntzak, pertsona zer den, kontzientziarazi behar du langilea: bere balio handia agertu, bere burua maitatzen irakatsi, bere buruaren nagusi izateko gaitu, heldutasunera eraman. Kooperatibismoaren aurretiazko funtsezkoena, kideen heldutasuna da, hezkuntza beraz. Bestela ez dago behar den erantzukizun eta solidariotasunik, ez kritikarik txarkeria gabe, eta askatasunik kaos gabe. Kooperatibismoak, aurrena kontzientzia berri bat ekarri duelako, ekarri du enpresa molde berri bat. Kontzientzia berri hori, pertsonaren duintasunarena eta lanaren nobletasunarena da: langilearen ohore eta harrotasun kontzientzia hortaz.

Abereak ez bezala, gizakiak (eta berdin, gizarteak) egiteko dauka bere burua. Horretarako gizaki/gizarteak (abereak ez bezala) lana dauka, ohartu du Hegel-ek Adam Smith filosofikoki garatuz. Lana da gizakiak daukan bitarteko baliagarriena harremantzeko gauzekin, naturarekin, beste gizaki eta herriekin; eta bere jauntasuna finkatzeko inguratzen duten gauzen, naturaren, jendeen eta herrien parean. Animaliek ez dute lan egiten, gizakiak bai. Gizakiak duen edukitasun baliotsu eta sakratuena da lana. Hala, bada, errespetu hori azalduko dion lantegi eta lan sistema zor dio gizadiak lanari. Hala berean, gizakiak ez du bere burua osatzen ingurunea osatu gabe; eta ez dihardu lanean, lagunartean jardun gabe. Lanarekin, horrela, izadia eraldatzen da, gizartea antolatzen da eta historia aitzina aitzinarazten, lagun hurkoari laguntzen, askatasuna irabazten, nortasuna konplitzen. Eta, hala, betebeharra izateaz gain, lan ona karitate hoberena da; eta berdin, zerbitzu publiko

